EGUNA JEL

Benetako abertzaleak estu aldietan ezagutzen dira, beroen ta zindoen orduantxe egoten diralako.

Lgo. urtia | 110'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. orrilla 10'gna. astelena | 15 eunen

EUZKO GUDA-OÑETAN

SOLLUBE'N aintzaz bete ziran atzo gure gudariak

Egun guztian joaldi bero ta gordiñak egin ziran eta gure gudariak toki batzuek ostu eutsezan arerioari. Eŕigoiti'n paxisten gudarozte lodiak gogorki jo eben gure esiak apurtu nairik. - Beste guda oñetan.

EUZKADI'KO GUDA EKIÑALDIEN BURU AGIRRE JAUNA IZANGO DA.

Eŕigoiti-Euba aldean eundakak il eutsezan gure mutiłak arerioari. - Solube'n buŕuka gordiñak

Ipaŕaldo gudoñak (Bizkaya)

Solube aldean gure gudariak joaldi batzuek egin ditue eta tontoŕ batzuk artu, oŕela atzoko esiak obetuaz.

Arerioak bere aldetik, artileri joaldi az suagatu ditu gure mendiak, ondoren barik.

Eŕigoitia-Euba aldean arerioaren joaldi bat atzeratu da. Egazkiñen artileriaren laguntasunagaz gure esiak apurtu nai zituzan.

Paxistak, alde onetan egin eben atzerakadan, eun ildako baño geiago laga zituen.

Erdiko gudoñetan (Araba)

Dima aldean artileri-buŕukak.

Egoaldeko gudoñetan (Burgos)

Goraberarik ez.

SOLUBE'N

Goizian-goiz, eguna argitu orduko, ta'zan zaratarik eta buŕukarik alderdi onetan.

Auregunean galdutako leku batzuek artzeko gogo bizi altzau ziran gure mutilak. Areriogan indaŕ eta sendotasun andia bilatu eben oŕetarako. Auregunean ibili ziran indaŕak geituta egozan, ba, leku oŕetan.

Origaitik buŕukaldi gogoŕak, gordiñak eta setatsuak egin bear izan ziran baŕiro leku oŕeik irabazteko.

Gure mutilak, baña, artzeko agindua artuta euken-eta, ezin agindurik bete barik laga.

Jo ta jo, adorez ta kemenez arerioari tarbea bilatzeraño eldu ziran.

Tarte ori bilatzeko, buŕukaldirik gogoŕenak egin beaŕa egon zan.

Alde batzuetan, bayonetiagaz jokatzera elduko zirala uste gendun aurez aure iñarduen taldе biak.

Ainbesteraño etziran eldu oŕaitik, arerioak gure gudarien nausitasuna ikusi ondoren, adorerik eta odolik izan ezebalako oŕetarako.

Eta pixkan-pixkanaka atzeratuaz, gure mutilen kemenari lufak lagaten juan zan.

Goizeko saspiretan, baŕiro euzko ikuriña aizetara zabaldu zan auregunean egon zan tokietan.

Geroago egun guztian gogorki jokatu zan.

Paxistak egazkiñak eruan zituen alde oŕetara eta egazkiñok gure gudarien artera sua zabaltzen jardun eben.

Ala ta be irabazitako lufekaz baŕiro jaubetuterik ezeben lortu.

EŔIGOITI EUBA'N

Oso-osuan jo eban alde onetan arerioak.

Eta ez bigun ta me, sendo ta gartsu baño.

Zornotza (Amorebieta) artu naiean nunbait?

Portugal'dik, igandean artuko ebela iragaŕi eben bariku gabean.

Oraingoan oŕaitik beste askotan legez, oker urten dautse iragarkizunak.

Joaldiak - joaldi egiñaren, buŕukaldi zitalak eta etenkoŕak egin-aŕen, gure mutilak ipiñi eutsen esi gogoŕ ta sendorik igaroterik ezeben lortu.

Egazkiñak lan ugari egin eben baxisten alde. Bidea gertuten eutsen, baña gudariak aurera egiten asi ordukoxe, eundakak betiko jausten ziran eta an geratzen ziran lur gañean.

Paxistak, igeskadetan, euren ilak eruateko astirik be ezeben izaten eta an geratzen ziran, gure mutilak lufa emoteko.

Oŕez gañera tanke bi laga eutsezan ezerestuta.

Alde onetako atzoko joaldiak gogoangaŕiak izango dira.

Gure mutilen sendotasuna ta kemena, gure gudarien indaŕa zenbaterañokua dan argiro agertzan dauskue.

Igandean era oŕetan jokatu eben gudarietan itxaropen osua dogu.

Arerioak lofik eta nekerik izango dau gudari oŕein esi gogoŕak apurtzeko asmotan jaŕaitzen ba'dau.

BESTE GUDA-OÑETAN

Aipagaŕirik ez beste guda-oñetan.

Igarotako egunetan legez gure kañoiak Sebigain eta Txapitelaŕa suagatzen jaŕaitu eben, arerioari bere lanetan ez lagateko.

EGAZKIÑAK

Eguraldi txaŕa zan igandean.

Gure mendiak lañoz beterik aurkitzen ziran.

Ala ta be paxisten egazkiñak oŕ ibili ziran, guda-oñak suagatzen eta guda atzetako eŕi batzuetan be euren lofatzak laga zituezan.

ERABAGI ZUZENA

Guda zaingoak agertu daben erabagia irakuŕi dogu.

Erabagi ori euzko ministruen batzaŕean artua dala jakiteak indaŕ geiago emoten dautso.

Erabagi onek biziro poztu ta alaitu gauzala, esan beaŕean gara. Gure ustez aspaldi batetik artu bear zana gañera.

Euzko eŕiko guda-lanen burutza eta gure gudarien zuzendaritza ezin daike edo ez dau beste iñok euki bar euzkotaŕ batek baño. Ori gure izateak eta gure gudarien goguak eskatzen dabena da. Ori lenena.

Euzkadi'ko gudaren asuntasun guztia, zoriťxaŕeko izateko ba'da, guda oŕetan parte artzen dabenak bakaŕik izan bearko ba'dabe, bidezko gudearen zuzendari gero asuntasun guztia eruan bearko dabenak eruatea.

Gure izate ta eskubidien aldezpenerako oinkada zintzo ta argi bat emon dala uste dogu oraingo onetan.

Alderdiak or ibili dira gudarozte bat bear zala-ta; onez edo gogo txaŕez, gogoz edo bearkunez, norberenez edo besteak baretu ta gudearen dan eta aurerapidiei eragozpenik ez ipintearen, alderdi guztiak gudarozte ori osotzera mallkurtu dira. Gudarozte oŕek Euzkadi'rena izan bear eban.

Gure gobernua izan ezkero, bidezko ta legezko gudaroztea gobernu oŕena izatea.

Gudaroztea legez beintzat osotu ondoren, etzan osoro gobernuarena, agintariak etziralako Euzkadi'renak. Oŕela Euzkadi'ko gobernuak bere gañetik beste batzuk sentiduten ebazanik ezin ukatu; be're agintaritza pixkaŕbat ba'da be, txikituta ta zaŕituta ikusten ebanik ezin ukatu.

Oŕetara ezin zeinkian. Gudaroztea euzko gobernuaren izan ezkero, Euzkadi'ko guda danen zuzendaritza guztia eruan bear ebana eta dabena euzko gobernu ori izatea legezko.

Gaur, agertu dan erabagiaren bidez, euzko gobernuak bere gudaroztearen jabetasun osoa lortzen dabela ikusten dogu. Guda-lanen zuzendaria, guda arazo guztien buru legez izan bear eban eta daben bakaŕa izango da: Euzkadi'ko guda ardunaduna.

Bere laguntzaleak berak izentauak izango dira, bere odiskidetasun eta uste osoa bear dabelako.

Erabagi oŕegaz pozez gagozala autortzen dogu. Euzkadi'ren agintaritzeak eta izateak ez dabe ezer galduko baragaz, aŭeratu ta irabazi baño.

Gure ustea orixe da beintzat.

Guztiok tinko!

Ez gara aspertuko esaten eta befesaten.

Une laŕietan bizi gariala guztiok gogoan artu bear dogu.

Eta aldi oneri yagokon legez, une laŕi onetan jokatu bear dan erara jokatzeko gertu egon bear gara.

Bilbao'tik umiak eta emakumiak Frantzia'ra eta Inglateŕa'ra juaten asiak dira. Eŕi bi oŕeitako Gobernuak emon dauskuen laguntasuna eskartu beaŕean gara. Gaur lako ordu etan emakumiak eta umiak gure onduan, bereziki paxisten biotz basatia ezagutu ondoren, kaltegaŕi ta ŕepelgaŕi dirala ba'dakigu.

Oŕez gañera eurak gaizkatuteko bearkuncan giñan, guda onetan parterik artu ezik, ikziluen eta armen surik eurekanaño eltzea bidezko ta egoki ez dalako.

Milaka juanak dira onezkero; oraindik beste mila asko juateko dira. Euret aguŕ egitean, laster arteko itz bat emonak gara. Itz ori gure biotzen eta gure itxaropenen agerpena da.

Une laŕiok, aldi estuan, ezin daike luzarorako izan.

Bilbao'k, Euzkadi'k, arerioa bere gibeletik, bere bafutik bastartu ta atzeratzen dan egingo dau, orain arerio oŕeri bidea ebagiten, arerio oŕeri bernak ebagiten lan eta jokatzen daben antzera.

Bilbao estualdian luzaro egotea zer izango litzaken ba'dakigu.

Afisku ori Bilbao'tik alde eragitea yagoku orain. Gudarien indaŕak eta gudarien lanak laguntzea, atzeko indaŕa bear dau.

Bakaŕik barik, atze guztia beragaz dagola adierazi ta erakutsi bear dautsagu gudariari; atzea beretzako lanetan dabilala; atzeak bere oldozpen eta gogo bardiña darabilazala; atzeak bere sentimentu berbera gordeten dabela.

Abeŕiari osoosorik eskiñita bizi diran gudari bulaŕtsu ta adoretsuak, abeŕiarentzat bakaŕ-bakaŕik diran gazte lerden ta gogotsuak, eurak degez, euren antzera, atzean bizi garianok, gure eginbeaŕak atzean doguzanok, abeŕiarentzat lanean eta abeŕiagan pentsetan gabiltzala erakutsi beaŕean gara.

Itzak-itz ez dira naiko. Itzak ekintzabarik guzur dira, atzipen dira.

Itzak barik, zeozer egiñaz, gudarako biziaz erakutsi bear dautsagu maitasun ori. Aldi onetan gudarako bizitea latza ta neketsua dala, ba'dakigu, baña beste biderik ez yagoku orixe baño. Gure alperkeria edo gure nagikeria, eriotz andi izan daikeguz. Lana, ostera, beti izango yaku bizitzearen gaizkale.

Garaitza bat edo bestetan uztiatuta, gure gudarien indaŕ eta kemenian sinistuta, ezin giñeikez alper eta lo egon.

Garaitzak lortu aŕen, kemena zindoki ta sendo agertu aŕen, atzearen lan barik, atzearen indar barik eta gogo barik, laster galdu ta laster ondatu leiz.

Kemen oŕek bizi-bide bear dau beti, adore oŕek berogaŕia bear dau. Ta bizibide ta berogaŕia ez dira besterik gure lana ta gure ekintzak baño.

Auŕekoak zuti ta gertu egon bear ba'dira, atzekoak beste ainbeste egitekotan gara.

Gudariak tinko agertu bear ba'dabe, atzekoak eurak lez tinko.

Oŕela ez egitea ta ez egotea arerioari bidea zabaltzia da, abeŕiari katiak ipintea da, gure bizitzeari eriotzea aurera tzea.

Eta nagikeriz edo alperkeriz ezin gejnke ez abeŕirik menperatzeko biderik zabaldu ez gure eriotzarik auferatu.

Gure eginbeaŕa abeŕia azkatutia eta gure bizitza gaizkatzea da.

Oŕetarako guztiok tinko!

KRESALA

EUZKADI'KO GUDA-ZAINGOAK ATZO GABEKO AMAŔETAN EMANDAKO AGIRIA:

Atzokoan, etsaiak asitako eraso gogoŕean jardun eban.

Alde bietako gudarosteak ekiñaldi biziak egin ebezan 30 kilometro baño luzeagoko guda oñetan, eta egun osoan jarduan ere.

Solube aldean gureak asitako joaldiak iraun eban, eta ondoren onurakoŕak iritxiaz; tontoŕ erpiñenak gure koluna batek artuak ditu.

Joaldi onek etsaiaren asmoak gaitsi egin zituan, kalteak kalte jasanaz, eta bere joaldi balkaña eta motza Eŕigoitia aldetik egiñaz; etsaiaren erasoko egoaldean, ordea, Ufumendi'n, lepobete artu eban. Bost bidar, gogor eta zetatsu oldartu ziran, eta mila lagun galdutea besterik ez eban lortu.

Buŕukaldi oneitan gure gudariak bikainki jokatu dabe, euren nagusien zorion-agurak inabaziaz.

Etsaiaren egazkiñak une baten ere alde egin bage ibili ziran guda-esien gañez, baña gure gudariak ixaturik ez eban iritxi.

SOLUBE'N

Gureak izan dira alde onetako joaldien aurerapenak.

Gure gudariak, larunbatean galduriko luŕekaz minduta eurak baŕiro artzea erabagi eben.

Igandean joaldi gogoŕak egin zituen eurak lortuteko.

Atzo be egun guztian eten barik jokatu zan.

Eta ez makal ta bigun, gogoŕ eta gordin baño.

Gure gudariak zenbateraño egin leikien agertu dabe guda oin onetan.

Goizian goiz asi zan joaldia.

Solube tontoŕera eltzeko iru edo lau tokietatik joten asi ziran gure mutilak.

Arerioak laster igaŕi eban joaldiok benetan zirala ta eragozpenak eta esiak ipinten asi zan.

Alpeŕik oŕaitik.

Gure mutilak ezegozan atzerantz egiteko.

Arerioaren arma ta egazkin guztiak ezeben lortu berari atzerarik egiterik.

Oŕela lenengo tonto txiki bat eta geroago beste bat gure mutilak arerioari lufak-luf kentzen juan ziran.

Tontoŕ gañean dagoz orain gure mutilak.

Oŕetarako egin diran joaldiak indartsuak izan bear izan dabenik ezin ukatu.

Eurak zenbaterañokuak izan ziran adierazoteko, egazkiñak lanik egiterik ezin al izan ebela agertzea naiko izango da.

Arerio biak alkar joten ibili ziran luzaro, bayonetiagaz bein baño safiagotan.

Oŕela egazkiñak ezin lanik egin, eurenak joteko aŕisku barik.

Mendi au artzean, mendi onetako auŕerakadetan, gure gudariak aintzaz bete dirala agertu bear dogu.

Sendotasuna ta indaŕa bear ziran arerioari berak nekez ta lofez irabazitako lufaldiak ostutekо. Ala ta be gure mutilak ainbesterik egin eben, abeŕiari begira bakaŕ-bakaŕik. Eta aitasun oŕegaz joaldiak aurera egiten jakin eben, arerioari aspaldikoŕik zigoŕik gaŕatzena leporatuaz.

EŔIGOITI'N

Solube'n gure gudariak ziran aurreakada eroenak.

Emon paxistak izan dira joaldiak egiten ausartu diranak.

Joaldi gogoŕak, setatsuak, indartsuak.

Egazkiñak lufaldiak auz bete ditue lenengoz. Gero tankiekaz aurera egiten asi dira.

Tanke batzuek bidian geratuta ikusi doguz auferarik egin ezinda, gure kañoiak edo eskuiko bonbak ezerestuta laga ditulako.

Gure mutilak arerioari aurera egiten laga izan dautse, gero tirora bende artzeko.

Oŕela bein eta biŕitan ainbat lagun il egin dautsez eta atzera biurtzera beartu.

Arerioak baña joaldietan ez dau geratu nai izan.

Eta eten barik aurera egiten ausartu da.

Lortu dabenik ez dagigun ukatu.

Armaz ganezka eta egazkiñez beterik agertu ezkero, aurera egitea ez da aŕitzeko.

Oŕaitio ez uste baña asko auferatu ta eŕez egin ebanik.

Lanik izan eban oŕetan eta gizon ugari galdu be bai. Milatik gora bai.

Oŕela, atzo egin al izan eban auŕerakada, odoŕez bustitakoa izan eban.

EUBA'N

Alde onetan be gogoŕ jo eban arerioak.

Indaŕ ugari erabili eban gure esiak purtzeko asmotan.

Bere igurariik ezeban lortu oŕaitik.

Gure mutilak gindoki eutsi eutsen eta paxistak oinkadarik ez eben auferatu.

BESTE GUDA-OÑETAN

Goraberа gitxi beste guda-oñetan.

Gure kañoiak, aspaldiko egunetan legez, Sebigain eta Txepitelaŕa suagatzen jaŕaitu eben, arerioari eragozpenak ipintеko asmotan.

Orduña aldean be kañoi otsak entzun ziran, baña zarata andirik barik.

Bestetan gora-berarik ez.



Manning anderea, euzko umien alde ainbat lan dagiana.

†

Ziarsolo eta Jungitu'tar Sabin

Ibaizabal saildiko Zubiaur taldeko gudaria

Abeŕiagaitik il zan Euba'ko guda-oñetan

1937'ko oŕila'ren 10'n

Ikurtonak eta Doipuru Onespena artuta

G. B.

Baldomer eta Baldomere guraso saminduak; Imanol, Eukeni, Miren Garbiñe eta Andone neba-aŕeb ak; Trojaola'taŕ Laure eta Lavin'daŕ Luken ezkon-neba-aŕeba'k, eta enparau senideak

Bere adizkidiei eskatuten dautse jaungoikua'ri bere goguaren alde otoi dagioela eta biar, goizeko BEDERATZIETAN, Bingen Deunaren ertxadonan egingo diran il-otoietara juan daitezala, eskartuak izango diralako.

BILBAO'KO izpafingiak

"Euzkadi"

"Luf-Gofi" idazlariena da jenengo zefmndako idazlana. Guda au, geu aldeztuteko egiten doguna dala diño, ta ez iñori oldaftuteko. Bestebategandik oldaftuba ixaten dan gixona, aldeztu egiten dala esaten dau, aldeztuteko eskubide ori bere-beria dauala-ta.

Bakotxak beria aldeztuteko eskubide ori gustiko lagijak aldeztuten dabena ba-da, alde gustijetatik oldaftutako efijari bere-beria dauan aldeztuteko eskubide o nok ukatuko daben ifanduten dau. Efija efiaf gustijakin osotuten dan gixabatza da ba erakusten dausku. Eta arevijuak oldaftuten dautsan efija aldeztuten, efiaf gustijak batera juan biaf garala.

Gure efija ludi gustijak g.ltasunez begiratuten eutsan efija ixan ei-da. Bere lagijak, latefirik ikasijenak eredutzat aftuta erakusteko gai diranak. Izkuntza be nezija, beste iñok ez dauan lako euzkera kutsugia, euzko-efijaren gogua ixan ei-da. Zorijontsu bixi ixan ei giñan geure abefijan, oparo ta beste iñoren bekaitz barik. Gure zorijonak, bafiz, iñortxu be ezin pi-eikian mindu.

Guk uste ixan ezafen, baña, oraingo jazokun oneik beste gauzarik agertu ixan ei-dauskube. Koldafkeriz oldaftu ixan ei dauskube, ta geure eskubide gustijetatik biloistuten asi...

Baña, gu, ofetarako eskubidian gagozalako, aldeztu egiten ei-gara, arerijuari bulafak erakutsijax etofi ixan dan bidietatik atzeruntz eragifeko.

"Lan-Deya"

Doistafen zilegiztitasunatzaz idazten dau. Doistafak, guri, kalte ixugafijak egifen dauskubezala diño. Ori ta gusti be, baña, euren [illegible] irafik ez ei-dautsegue jaurtiko. Geure arerijuak ei-dira, ta egirikuak ixan be, Alan be, baña, eurak dauken gustija ez ei-da txafa ixango.

Gixonaren ekintza gustijak neurtuten dauzan oñafi bat bai-ei-dago, ofaliño. Oñafi ori zilegitasunaren lenengo lasoñetan ei-dago.

Doistafen ordezkarijak latefibatzako batzafian esan ebazan itzak gogoratuten dauz. Gudea egifeko bakotxak bere guda-erea ebala esan ei-eban, ba, arek. Eta' erantzun ori, zilegi ez dan erantzuna dala diño, doistaf-ikasbidiaren eta Elexa deunaren irakatsi gustijen aufka daguala-ta. Doistafen zilegitasuna orixe ei-da ixan be. Bismarck'ek be asmo berbera aldeztu ixan ei-eban. Eta azkenengo guda nagusijan be, doistafak, lagi gustijak apuftu ixan ei-ebezan euren guda-era erafikofa lagi gustijen ganotik egifeko. ¿France afzeko Belgica apuftutia biafekua zala?... Eta Alemania'k, lagi gustijak austuta, Belgica apuftu egin ixan ei-eban.

Gauf be, Alemania'k, gudea egifeko bere era berezija ei-darabil, Bilbao afzeko Gernika efe ta deuseztutia biafekua ixan ba-yako, Gernika efe ta deuseztu egin ixan ei-dau Alemania'k. Franco, Mola ta españaf paxiota'k be, doistafen bidia berbera aftu ixan ei-dabe. Ofeikandik egali onik ezin itxaro ei-geinke. Ofeik geure arerijuak ei-dira. Eta geure arerijuak diralako, aufian jafiko ei-gayakaze, geure indaf gustijakaz oldaftubaz atzeruntz jaurtifeko.

"Euzkadi Roja"

Gudatu, ta gudea irabazi egin biaf dogula diño.

Igazi dan barikuban Solube'n ixan zan gudaketa gogofian gurendari urten ziranak, efi-aldezliak ixan zirala esaten dau. Gudaketa a, bafiz, orain afteko gustijak bat eginda baño be gogofagua ixan ei-zan gure gudarijentzat. Itxasotik, liofetik, gofik eta ibetik, alde gustijetafik oldaftuten ei-eben arerijuak. Eta alan be, gurendari urten ziranak, euzko-gudaroztiak ixan ei-ziran.

Larrunbatan, ostera, jazo biaf etzana jazo ixan ei-zan Solube-mendijan. Arerijuak aufeko egunian baño makalago oldaftu ixan ei-eben. Eta alan be, egin biaf ez eben auferakadea egitia loftu ei-eben.

Jazokun ori, Solube aldeztuten dabil-itzan gudarijentzat, aufeko eguneko gurenda-ospia lausotuta lagateko ixan ei-da. Eta ollakorik jazo ez dodintzat, gudan dihardufben gudarijak adoretu egin biaf ei-dira, adoria makalduta arerijuaren oldafketea baño txafagua dala-ta.

Gudarijen adoria makalduten lagaten ez ba-dogu ,gurendea geuria ixango ei-da.

"El Liberal"

Aldi estubetan aurkitzen garala diño, ta aiko-maikoetan ibilteko aspirik ez dagola.

"Ez dira igaroko" ta blako umekerijak ingijetan idatzifa kale-ertzetan agertuten ibilteko aldija ez ei-da aldi au. Ames utzak diran esakun ofei, jaramonik be gaaf ez ei-yake egifen.

Catalunya'n jazo ixan diran jazokun lotsgafijak be kalterik asko egin ixan ei-dauskube. Eta ain zuzen be jazokun ezeskafi ariek, Bizkai'ko gudaufkeaz batera jazo ixan ei-dira.

Jazokun areik, arerijuari indaf bafijak emon ixan ei-dautsez.

Gu, orain, umekerijak laga-ta, gixon agertuten alegindu biaf ei-gara. Arerijuari adoretsu oldaftu biaf ei-yako, eta aufera egifen laga ez.

Gu asko ei-gara. Asko ta gudeari eusteko gai garanak. Ofetarako, baña, gustijok batera jagi biaf ei-gara, arerijuari atzeruntz eragifeko gusti-gustijuen indafa biafekua dala-ta.

Arerijuak orain be, indaf bafijak aftu ixan ei-dauz. Eta indaf bafi ofei eutsi egin biaf ei-yake. Beraz, gu be, alkaftu egin biaf ei-gara, geure indafez sutsu oldaftubaz, arerijua betiko bebuteko.

"Tierra Vasca"

Arerijo bi ixan doguzala diño. Bijetatik bata, baña, gudaufkatik iges-egiada daguala. Orain daukagun arerijua, atzefifafa ei-da, doistafak, italiafak eta mairubakaz osotuten dan Mola etoyaren gudaroztia.

Ila bete onetan, gudaufka ori, bafiz, emen, Euzkadi'n egiten dabena ei-da. Eta gudaufka onetan gudea egiten dabenak, atzefifafak ei-dira.

Eta alan be, Europa'k, emen jazoten dan bafi ez ei-dau ondiño jakin. Gudara ez safizeko asmotan daguan Europa'k jakin biaf leukena ei-da, bafiz, au.

Paxiotafak diñuenez, Madrid'ko gudofietan eurak, italiaf gudari gitxi batzuk baño ez ei-daukez. Doistafetan eta mairutan be, beste apuf batzuk.

Madrid ufun daukagula diño, ta aingo gauzak laga-ta, geuriai begira jafi biaf garala.

Eta emengo gudoñetara begiratuta ikusten doguzan gudarijak, italiafak, doistafak eta mairubak ei-dira. Eta ain zuzen be, atzefifaf gudari oneik, Mola'ren gudaroztia osotuten ei-dabe.

Emen, Euzkadi'ko gudoñetan, efusifafik ez ei-da ikusten. Emengo atzefifafak Hitler, Mussolini ta Apirka'ko mairubak ei-dira. Mola'ren gudaroztiak eurenez ez ei-dira gauza ixan euzko-gudaroztiei gudaufkea egifeko. Esturaldi aundijan biribildu ixan ei-gafubez. Marapilo ori be, baña, Goikua-lagun, azkatuko ei-dogu.

Belgika ta Japon

Mundu naasi ontako politika arkoak aldakuntzia aundiak egiten ditu denbora gutxiren buruan. Efiak buruz jaso ta biderik egokienak autzen asi diranekoa esan genezake. Oraingo olatua askaltasun edo demokrazi aldera itxu itxuan doiala ikusten degu. Au guretzat pozgafi bezain onurakor danik ezin ukatuko degu. Eskuartean degun bufukaldi ikaragafi onen gora-berarako gafantzitsu danik ain gutxi.

Belgika'ko guteskundetan rexismo ezeskafiaren bultzadaz Degrelle "señoritua" garaile urten balitz, gu jurperatu ta ezkutaraztea beste ametsik ez duten lateri paxistak afokeriaren bidez zerutaraño iyoko ziran, eta aieri konturik txikiena eskatzen etzan giro izango.

Belgika bezelako efi baten gogoa zein aldetara okertzen dan jakiteak asko esan nai du. Van Zeeland'en garaitza mutufeko azi xamafa izan da Itali ta Alemani'rentzat. Degrelle biote txikiak irabaztea gerta balitz, gose maltzufak eratxi zoriz daukan leoiak giza soña ikustean bereçana daraman irentsi-gogoa ekafiko zuten paxista latefiak gugana.

Lenago alatsu ez dakartenik ez degu ukatuko, baña era ortako gurenda batek askoz okefago jafiko zituan.

Japon'en ere guteskundeak egin befi dira. Efia zertara dagon jakiteko bidea orixe baita: autarki bidez ikustea...

Japon'ek munduko politikan duan gafantzia goimalenetakoa dala gelennok dakizutena da. Gudarako ondotxoen gertututako efia bera da gaurko egunez.

Japon'ek duan gudarostea beldurgaritakoa da. Ofotzaz gañera azken aurerapen guzietzaz jabetua dago. Emen ere ba, auteskundeak izan dita esan bezela, ta militarismoak uste ez benelako jipoia artu du. Japon'ek askaltasun edo demokrazi aldera pauso arigafi ori ematea pozkafi bezain onurakor da guretzat.

Efi ofek Alemani'rekin qituan artuemanak puskatzearen alde urten du efiak, eta ofetzaz gañera orain arte bezela Rusia'rekin aginka egoterik ez du nai, anaitasun osoan konpontzea baño.

Latefi olatua gure alderdira makurtzen da osoro.

Jeiki euskotafak! Egundo baño gudariago oraintxe! Gure bufukaldiari begira dago mundua. Emen faxismoa ankaperatzea lortzen ba'degu, gaur aurka ditugun efiak laister dira gure gurendazko maindirepean babextu nairik.

Egun auetan Italia'n katiatzen edo detenitzen ari diran jendetzak argiro erakusten digute.

Gaurko politika olatua askaltasun aldera dator oso osorik.

Goruntz biotzak!

BASAFI.

AMEA

Ixenez be dan atsegingafija! Agua eztiz gozotu ta bijotza narez gerekagetuten dauan itz osua. Ama ixan be baña, orderik ez dauan gixemia da. Besto gixemo batzuk ordia be ixan dadikio eta safi-askotan efaz ixan be ixaten dabe.

Neskamiak etxekandrea, etxeko andreak neskamia, nebeak afebea, ateak alabea baten ordez beste bat be ixaten dabe. Geyago, biztaldi osorako aftu ixan dauan senafak be, alafgun geldituta, beste emazte bat be, ta bat baño geyago be bai jafugi al ixaten dau.

Baña señak amik ezin jafugi ixaten dau.

Ez, ama bat baño ez da ixaten, berau galtzen ba'dau, umiq, señe bet zurtz ixango da, eta alperik beste gixeme on baten eskuban geldifu, ama-barik azi dabela, umiari beti igafiko yako.

Au ameak baxen eta ama-eraz mafe ixaten dakijan gixemerik ez dalako da.

Euzkotafok, euzkotaf garala-ta, amea dogu, baña enparau abendak lez bat bakafa; gure amea Euzkadi da ta Euzkadi baño ez, dogun abenda-ixatia, eta abendaz yakuzan enparau gauzak beronek emon dauskuzalako. Beraz, guk ama gu, Euzkadi mafe, kutun ixan biaf dogu.

Norbait biafixenez estututa danian, al dauana, beintzat jaguntzea aldintsuba ixango yakonian, ¿agun ixatia berenezkua dala, gustijok dakigu.

Ama estu ta lafi danian; ¿zer ez dau egin-biaf-gemjak?

Gofijenak ikusifa be, gustijari gitxi eretxifa, seme dan semiak, onelango aldijetan, amaren laguntzaie egokija ixateko lefenak egin-biaf dauz. Eta onantxe egifen ezpa-dau, seme ori endukatuba dala uste ixaten dogu, seme ixenik ez yakola zor be bai, eta amearen etxera, beria be bai da baña, safizeko eskubidia ukatu egifen dautsogu.

Ixan-be, aparik gozuenak, matemiñik zintsuenak, ikastirik befenak etxe ofetan, eta amak emonda atan-be, aftu, eta orain ama ori biafixanez estututa ta lafituta danjan, al dan-gifuan, laguntzaie-ixan gura ez dauanak seme-ixenik ez eskubiderik ezetara be ez dau biaf.

Aldi onetan Euzkadi, gure ama mategafija, iñoz estu ixan ba'da, ondo lafi ta estu da ba.

Arerijo malmutzak, alkafartuta, berau eran-guraz, alde gustijetatik afomauta, il-zorijan jafi dauskube. Arerijuak asko dira ixan be gixabiderik ez gixalagirik zaintzen ez dakijenak, Dolpuruba'ren ikastijak ostikopetuta be, uzkufiza apukotzat aguan aftuta, afokeriz burubak afo agertzen dabez, eta gu Euzkadi-barik, ume zurtz ifxi gura gabezala agobetian difiue, eta orainguan gogof ta gotofiki joten ezpa-dogu, jadetsi be egingo dabe.

Beraugafik, ez daigun Euzkadi-semiak gariala aiztu, buruban eta bijotz-bijotzian Euzkadi geure ama dala ixan daigun, eta iñozko sutsu, gartsu ta gofijen ixan be.

Endekatubak ixan gura ez da, yaokun Euzkadi-seme ixen dedutsu onen jabe agertu-guraz, baña Euzkadi geure etxe txukunjan bixifeko dogun eskubidja aldeztubaz, ama onen laguntzale egoki-egokijak ixan gadixan.

Gure gudarijak biaf dabena ta geyako egiten dabela bai-dakigu. Gixagurenak dirala esan dauskube. Ixenau, gure gardiz, lasufegija bada. Gixagurengurenenak edo gixagurentsurik gurentsubenak esan-biafez gara, orain-afteko edestijak eurok baxen gixagurenik agertzen ez dauskulako. Ludijak ezagutu dauzanik baño asko be areaguak, gurenaguak dira.

Ezifez gudofian ez garanok be bardin ixan gadixan, bakotxak eta gustijok al doguna, baña gusti-gustija euroen aldez egin daigun.

Txindidunak txindija emonda, jaktunak asmo bafijak asmauta, indaftsubak indafa erabilita, iru gauzok al dauzanak bapo ukatu ez da, eta orok otoi sutsubak, iraunkofak, apalez ta girneziz, aldintsubak zuzenduta.

Onetara, bai, onetara gurendea garria da.

MONTXOR.

(Sariketeari buruz egiña.)

Gizarte auzi buruz

SENDI ALOGERA

VII

Gizarte auzian zuzentza jartzeko latefiak asko lezakela ustekoa naiz. Askotan, nagusi batek sendi alogera bere olea edo lantegian jafi nai izanda ere, oleak edo lantegiak bear dan irabazirik ematen ez ba'dio, bere asmo onak aufera eramateko gogoarekin geratzen da.

Ezagutu bear degu sendi alogera jartzeko asmo oneko nagusiak ba'dirala. Diotena egiztatzeko naikoa degu begiratzea asmo au aufera eramandako nagusiari.

Nere ustez, sendi alogera ez da jafi bear nagusien bidez. Oso zala ikusten detalako. Izango dira nagusiak asmoa ontzat artzen ez dutenak ta beraz aufera eramateko zala litzake.

Latefiak lege bidez egin lezake langile efetiro ta beste lege asko bezela, lege bat nagusi guzientzat eta onela izanik nagusiak ba'dakite beren lantegiko zergaren artean bat geigo daukatela ta era onetan ez litzake berdingetasunik izango nagusi artean.

Latefiak lege zuzen bidez asko egin lezake langile alde nagusiari kalterik egin gabe... ba-da, langilea lan sari bidez gizon batek bere sendia, bear bezela biztzeratzen ba-du, oporketa gutxigo izango litzake eta nagusi ta langilecntzat oporketak dakarzkin kalteak urtean buruan aundiak dira. Nork ez daki iñoren meseder.ic gabe oporketak dakarzkin kalteak?

Goian jafitako zioagatik, uste det, egokiago dala latefiak lege bidez sendi alogera jartzea. Euzko langile ta nagusi artean asmo au aufera eramateko eragozpen aundirik ez luteke bilatuko... ba-da, ezagutu bear degu Euzkadi'n gizarte zuzentza aldez España'ko latefipean bizi diran erkietan geina egin dala... oraindik asko egiteko ba-dago ere.

Sendi alogeratzat dioten bezela, beste era askotan egin genezake gizarte zuzentza aldez langile ta nagusiak maitasunez jokatuaz. Euzkadi'ren azkatasuna irizten ba-degu, aundiagoa oraindik.

KISTAR MAITASUNA IZAN BEDI GIZARTE IKUFITZA

Euzkotafak, Euzkadi'n azkatasun ametslari izan gera. Guk nai gabe guda madarikatu onetan sartu gaituzte. Gurenda'ren olartzuna dakust. Azkatasun gurenda, Gure ametsa zearo betetzeko, Euzkadi zoriontsu ikusi nai degu. Zertarako Euzkadi'ren azkatasuna zorionik ez badakarkigu?

Askorek gofoto ta jakingetasunak menperatuta uste izan dute Euzkadi'ren azkatasuna iritxi ezkero abeftzaletasunaren eginkizuna betea dagola. ¡Bai zera! Azkatasuna iritzi ondoren ekin bear diogu abeftzaleak beñere baño sutsuago azkatasun bidez abefiaren zoriona irizten.

Gizarte zuzentza aldez Euzkadi'ren azkatasun bidez egin genezaken lanak neurfirik ez dauka.

Bestela, zertarako Abefia'ren azkatasuna len baño okefago izateko euzko zuzentza? Euzkadi'n, euzko gogoa darabilkigula, kistaf maitasuna benetan eta zintzo erabiliaz, ezpairik gabe ludi guziari erakutsiko diogu abenda zar au azkatasun diña dala.

⁂

Goiko jauna'k nai dezala, langile ta nagusi, anai maitasunez gizarte zuzentza oñafi, kistaf maitasuna ikufitzat artuaz gizarte zuzentza eta efiketa edo politika'n alkafi bear dan lotsa agertuaz euzkotaf guziak anai maitasunez bizi izatea.

Jeltzaleak geranok, alegindu gaitean langile ta nagusiak kistar zintzoak bezela jokatzen.

Ezpairik gabe guda onen ondoren kistar zintzoak bezela jokatzen ba-degu, befiro zuzpertuko da, kistaf sinismena, sinisgetu diranen artean ere, antziñatik euzkotafen artean biotz biotzean daramakiguna.

MENDI LAUTA

NASKALDIJA

Gixabide bafiuak garala entzuterik ez dogu gura ixaten. Ez jakiñak garala entzutiak be, min egifen dausku.

Azikera onekuak garala erakutsi biaf ixaten danian, baña, azikera onekuak aurkitzen diran lekutik ufun aurkitzen gara, gu. Eta jakifurija erakutsi biafa ixaten danian be, beste ofen beste jazoten yalu.

⁂

Aspaldiko asalda-turutotsak bide dirala, gordelekubetanuntz egin biafa geuk gura baño safijago ixaten dogu. Eta batzuk uste ez ba-dabe be, gixabidia erakusteko-ta, gordeleku oneik berebixilkuak ixaten dira.

"Daukanak erakutsiko dau" — esan oi -eben gure gurasuak—. Eta alantxe ixan be: gixabidia daukanak, gixabidia erakutsiko dau. Basabidia daukanak, ostera, basabidia. Beraz, bakotxak berak dauana erakutsiko dau, ta eltzen dan toki gustijetan erakutsi be.

⁂

Efi-osasunaren zuzendari diran aginta-rijak, izpafingi-bidez eta itzez be, osasun-aldezko irakatsijak-irakatsi edatu ixan dabez. Gordelekubetan ostenduten diran notiñak, bafiuko eguratsik zikindu ezedijantz, ixilik, itzik egin barik egon biaf dirala esaten dabe agintarijak. Iñoren onurik aintzakotzat afitzeko jayo ez danak, ¿zelan agindu oferi jaramoteko?...

⁂

Batzuk, bai. Batzuk, agintarijen agindubari, euren ixilfasunaz erantzuten dautsoe. Eta euren azikera ona ta gixabidetasuna be, olantxe erakusten dabe. Bestatzuk ez ostera. Geyenak izkanbila osuan iñarduten dira, gordelekubetako eguratsa ta amasea edenduten. Beraz, azikera onari ta gixabide-lagijai ostikadeak-ostika emoten...

⁂

Ostikadeak-ostika emoten ba-dabez, be, ez esan gero, ofeik, azikera onekuak ez diranik, ez da gixabidetik ufun bixi diranik be. Olakorik ez dabe entzun gura ofeik. Euren gixabidia beste gustijen gofik aurkitzen dala erantzungo dabe. Eta eurak diñuenak indaf geyago ixan dagijantzat, itz bifaftietan birau itxusijen batzuk esatia be ba-lifeke...

⁂

Aurtemin, latefibatzako gixon jakifunak, batzaf bat ixan eben. Eta batzai-aretan, doistafak Gernika'ko urijan egin ixan eben basatikerija agertu ixan ei-eben. Basatikeri a eredutzat aftuta, batzafkide baten eretxija auxe ixan ei-zan: egazkifiez era ofetara gudatzetiko urijak deuseztutia txafto eguala, ta guda-era gobendu egin biaf litzalcela.

⁂

Doistafen ordezkarija be batzaf aretan ei-eguan. Eta arek, auferagoko batzafkidiaren eretxija, beriala ezeatu ei-eban, erantzun onegaz ezestu be: bakotxak bere guda-erea dau, erantzun ei-eban, ba, arek, eta doistafak dauken guda erea, guda-atzetiko uri ta basurijak suagatutia zala.

⁂

Erantzun polifa, dein, doistafen ordezkarijarena. Aren gixabidia orixe dala, bere erantzunan ikusi ixan da. Eta ludi-aufian agertuteko aldija eldu ixan yakanian, bafiuban ostenduta euki ixan eban basatijen ixakerea agirijan fmiñi edan. Doistafakandik itxaron geikena euren ordezkarijetan ikusten dogu. Ofeik, doistafbide-lapufoik, eurenaz urtetlafen, guda-erarik basatijenak erabiliko dabez. Arerijo ankefak dira doi tafak. Euren gurari dounge ofeik, ¿gurendea ixango ete-dabe?...

⁂

Gudea asmau ebanak guda-aufetijan auferengo lefuan gudatu biafa ixan ba'leu, ¿gudarik asmauko ete-eban?

Ofen guda-egafi agertuten dan ¡Hitler edo dalako ofek, bere guda-egafija asetako, guda-aufetira juan biaf litzake, antxe guda-aufetijan gudatubaz neufi beko guda-egafi ori asetako.

Baña ez. Hitler ez da guda-aufetira juango. Atzian geratuko da, guda-atzetitik beriak ez diran semiak guda-aufetijetara bidalduteko.

⁂

Zijo barik gudea sortuten daben agintarijari, iñok be ez leukijo jafizu biaf. Ori egingo ba'litz egin, gudarik ez litzake iñoz ixango, gudea sortuteko zifirik ez dagolako.

⁂

Gudea sortuteko zijorik ez dagola esan dogu. Zijo barik sortu ta ekafi biaf ez eban lekura gudea ekafi ixan dauanari aufia erakutsijaz bidia esibuteko biafkuna bai ofafiño. Biafkun orixe da ixan be, gudaldi onetan guk, euzkotafok, betatuten doguna: gudea egifen dauskubenen aufka jagijaz, geure eskubidiak aldeztu.

⁂

Guda zaliak ez gara. Iñoz be ez gara ixan, ez da ixan gura be.

Geure eskubide-zaliak gara baña. Beti ixan gara, ta ixan be ixango gara. Geure eskubidiak betuten gudeaz yatofkunari, gudeaz erantzuten dakigu. Ez guda-egafi garalako, zuzentza egafi garalako baño.

Goikua'ren zuzutsa aldeztutiafen jagifen diran gudaroztien aldezlo gotafa, Mikel Gongotzon deuna da. Euzkadi'ren Zaindarija, be berau dogu. Beraganuntz zuzendu gadixan, ba, ta bijotzez eskatu:

"Mikel, Mikel,
Mikel geuria,
Zaindu, zaindu,
Geu-Aberija."

Janari Zuzendaritza nagusia

ISUNAK

Canales'tar Imanol'eri, aixikoriagaz nastean malte saltzeagaitik, 100 laurleko.

Landa'tar Juli'ri, txokolatea saltzeagaitik, Orniketa'k galerazo ondoren, 500.

"La Paz" ogikindegiari, beaf daben baño ogi geiago saltzeagaitik, 100.

